

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

55 herrik ezingo dute obra berriak egiten hasi, zorpetu daitezkeela egiaztatu arte

Nafarroako Gobernua, gainera, obrak dagoeneko hasita dituzten beste 30 herriren espedienteak aztertzen ari da

Martes, 02 de agosto de 2011

Guztira, 55 toki entitatek ezingo dute obra berriak egite hasi, harik eta zorpetu daitezkeela egiaztatu arte. Gainera, Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua obrak dagoeneko hasita dituzten beste 30 herriren espedienteak aztertzen ari da.

Era horretan, egiaztatu nahi da zorpetzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten toki erakundeek, Gobernu Zentralak 12/2010 Foru Legearen aurka sustatutako konstituzio-kontrakotasuneko helegitea izapidetzeko onartu eta gero; Foru Lege horren bidez, defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak egokitu dira Nafarroarentzat.

Egoera horrekin, legea denboraldi baterako eten da. Lege horren bidez, Nafarroako toki erakundeek zorpetzeko aukera zuten inbertsioak egiteko, foru Exekutiboaren alde aurreko baimenarekin, eta estatu arauaren aplikazio gehigarriko.

Horrela, toki erakundeek, zorpetu ahal izateko, egun, ondorengo baldintzak bete behar dituzte: alde batetik, 2010 ekitaldia aurrezki garbi positiboarekin likidatzea eta hori behar adinako izatea hitzartuko diren maileguen finantza-zamari aurre egiteko; eta, bestetik, erakundearen zor biziak, hitzartu beharreko mailegu berriak barne, likidatutako sarreraren %75 ez gainditzea.

Testuinguru horretan, Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak ateratako ofizioan toki erakundeei ohartarazi zaie obra berririk ez hasteko, Departamentuak maileguak sinatzeko oniritzia eman baino lehen.

Gainera, toki erakundeek ezarritako baldintzak betetzen dituzten egiaztatzen ari dira. 55 toki erakundeek aurreikusitako obrak hasi gabe dituzte, eta horietarako 7,2 milioi euroko maileguak behar dituzte. Horietatik 30ek zor bizia dute, 2010ean sarreraren %100 gainditu duena.

Modu berean, beste 30 entitatek obrak dagoeneko hasita dituzte, eta horietarako 2,6 milioi euroko maileguak behar dira. Haien kontuak aztertzen ari dira zorpetu daitezkeen jakin ahal izateko. Ezin badira zorpetu, irtenbide bat bilatuko da espedienteaz espediente. 30 herritatik 18tan Udalaren zor biziak sarreraren %100 gainditu du 2010. urtean.